# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia | Iruña, 2025eko urtarrilaren 17a | 3. ZK.

**A U R K I B I D E A**

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/MOC-00150. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako kirol-erakunde eskudunak premiatzen baitira kasuko instantzietan legez jardun dezaten Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioaren Biltzarrak hartutako erabakiak baliogabetu daitezen. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).

—11-25/MOC-00001. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko izapideak abiaraz ditzan Murchante, Cascante, Barillas, Ablitas eta Monteagudoko ikasleak elkartzea ahalbidetuko duen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu bat sortzeko. María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkeztu du (5. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—11-24/PES-00533. Galdera, Nafarroako Gobernua kirol egokitua dela-eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web bat taxutzera premiatzen duen mozioa betetze aldera hartutako neurriei buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00534. Galdera, Nafarroako Gobernua REFENAra eraman zitezkeen kirolei buruzko azterlan bat egitera premiatzen duen mozioa betetzeari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00535. Galdera, Irulegiko eskua jendaurrean modu iraunkorrean erakusteko lekuz aldatzeari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00536. Galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitalean bost espezialitatetako azterketak egiteko itxaron-zerrendak handitzen ez jarraitzeko ekintza-planari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (9. or.).

—11-24/PES-00537. Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitalean azterketak egiteko itxaron-zerrendak handitzen ez jarraitzeko Osasun Departamentuak prestatutako ekintzei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (10. or.).

—11-24/PES-00538. Galdera, García Orcoyen Ospitaleko bost espezialitatetan azterketak egiteko itxaron-zerrendak handitzen ez jarraitzeko Osasun Departamentuak prestatutako neurri zehatzei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (10. or.).

—11-24/PES-00539. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan azterketak egiteko itxaron-zerrendak handitzen ez jarraitzeko Osasun Departamentuak prestatutako neurri zehatzei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (11. or.).

—11-24/PES-00540. Galdera, García Orcoyen ospitalean azterketa egiteko itxaron beharreko denborari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (11. or.).

—11-24/PES-00541. Galdera, Tuterako Reina Sofía ospitalean azterketa egiteko itxaron beharreko denborari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (12. or.).

—11-24/PES-00542. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan azterketa egiteko itxaron beharreko denborari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (13. or.).

—11-24/PES-00543. Galdera, Lezkairuko Osasun Mentaleko IIA sektorean azterketa bat egiteko itxaron beharreko denborari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (14. or.).

—11-24/PES-00544. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko apirilean berritzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (14. or.).

—11-24/PES-00545. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko abuztuan berritzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (15. or.).

—11-24/PES-00546. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko abenduan berritzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (15. or.).

—11-24/PES-00547. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko urtarrilean berritzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (16. or.).

—11-24/PES-00548. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko otsailean berritzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (16. or.).

—11-24/PES-00549. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko uztailean berritzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (17. or.).

—11-24/PES-00550. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko ekainean berritzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (17. or.).

—11-24/PES-00551. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko martxoan berritzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (18. or.).

—11-24/PES-00552. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko maiatzean berritzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (18. or.).

—11-24/PES-00553. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko azaroan berritzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (19. or.).

—11-24/PES-00554. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko urrian berritzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (19. or.).

—11-24/PES-00555. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko irailean berritzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (20. or.).

—11-24/PES-00556. Galdera, Luzaideko ibiltokiko lanei buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (20. or.).

—11-24/PES-00557. Galdera, NICDOren plantillan 2018tik 2024ra bitarte egindako kontratu finkoei eta behin-behinekoei buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (21. or.).

—11-24/PES-00558. Galdera, Nafarroako Gobernuak bere gardentasunaren gaineko kanpo-ebaluazioren batean parte hartzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (22. or.).

—11-24/PES-00559. Galdera, NAITEC zentro teknologikoko langileek Nafarroako Gobernuari egin dituzten bileretan egindako eskariei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (22. or.).
—11-24/PES-00560. Galdera, jakiteko ea SODENAk zer dela-eta ez dituen publiko egiten bere webguneko gardentasunaren atalean 2024ko maiatzaren 2tik hona egindako administrazio-kontseiluen aktak. Cristina López Mañero andreak egin du (23. or.).
—11-24/PES-00561. Galdera, Irujo kontseilariak aipatzen duen Sunsundeguiren Administrazio-kontseiluaren osaerari buruzko "kontsulta juridiko-legalari" buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (23. or.).
—11-25/PES-00001. Galdera, gaixotasun mentala duten pertsonak Iruñeko Aita Menni Klinika Psikiatrikoan eta Elizondoko Benito Menni Ospitale Zentroan artatze aldera Elizondoko Jesusen Bihotz Sakratuaren Ahizpa Ospitalarien Kongregazioarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (24. or.).
—11-25/PES-00002. Galdera, eremu euskalduneko eta eremu mistoko afixa elebakarrei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (25. or.).
—11-25/PES-00003. Galdera, talentua erakartze aldera Buenos Airesko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (26. or.).
—11-25/PES-00004. Galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian hidrogeno berdeko planta bat eraikitzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (27. or.).
—11-25/PES-00005. Galdera, Nafarroako osasun-garraioaren oinarrien kokapenari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (28. or.).
—11-25/PES-00006. Galdera, Europako NG SEM funtsei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (28. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—PER20230032. Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hamabi administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Horietarik hamar Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak (bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin) izanen dira eta bi Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoak (bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin) (29. or.).
—11-24/ELCC-00001. Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Kontseiluko kontseilari bat hautatzea (30. or.).

**E saila:**
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# 11-24/MOC-00150. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako kirol-erakunde eskudunak premiatzen baitira kasuko instantzietan legez jardun dezaten Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioaren Biltzarrak hartutako erabakiak baliogabetu daitezen

*UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako kirol-erakunde eskudunak premiatzen baitira kasuko instantzietan legez jardun dezaten Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioaren Biltzarrak hartutako erabakiak baliogabetu daitezen.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioaren erabakiari buruzko honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioak joan den abenduaren 28an –larunbata– Iruñean egindako biltzar orokorrean erabaki zuen bere estatutuak aldatzea, Euskadiko Euskal Pilota Federazioa eskubide osoko kide gisa onartzeko. Erabaki hori ikusita, eta kontuan hartuta Espainiako Pilota Federazioak eta Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioko zenbait kidek salatutako irregulartasunak, Nazioarteko Federazioko afiliatu guztien informaziorako eta parte-hatzerako eskubideak urratzea dakartenak, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak uste du hartutako erabaki horiek zuzenbide osoz deusezak direla eta aurkaratu egin behar direla, bai kirol arloko justiziaren aitzinean, bai arlo zibilekoan, egoera bidegabe hori zuzentzeko.

Hori dela-eta, Unión del Pueblo Navarrok honako erabaki-proposamen hau aurkeztuko dio Parlamentuaren Osoko Bilkurari:

1. Espainiako kirol instituzio eskudunei eskatzen diegu behar diren instantzien aitzinean legez jardun dezaten Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioak hartutako erabakiak baliogabetzeko.

2. Espainiako Gobernua premiatzen dugu Kirolaren Legearen 48. artikulua alda dezan —autonomia-erkidegoetako selekzioek nazioartean partehartzea ahalbidetzen du—, Espainiako kirol autonomiko osoarendako arazo baten sorburua delako eta Espainiako kirol instituzio guztiek —bai Espainiako Komite Olinpikoak, bai Espainiako Kirol Elkarteak (ADESP)— artikulu hori indargabetzea eskatu dutelako".

Iruñean, 2024ko abenduaren 30ean

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

# 11-25/MOC-00001. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko izapideak abiaraz ditzan Murchante, Cascante, Barillas, Ablitas eta Monteagudoko ikasleak elkartzea ahalbidetuko duen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu bat sortzeko

*MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko izapideak abiaraz ditzan Murchante, Cascante, Barillas, Ablitas eta Monteagudoko ikasleak elkartzea ahalbidetuko duen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu bat sortzeko.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Inmaculada Jurío Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Hezkuntzako kontseilaria premiatzen duen honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Murchante, Cascante, Barillas, Ablitas eta Monteagudoko ikasleak hartuko lituzkeen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu bat eraikitzea aurreikusten du Hezkuntza Departamentuak. Departamentuak hori jada jakinarazi die toki-administrazio horiei egin diren lan-bileretan, eta horren berri eman zaie orobat eskualde horretako gizarte, hezkuntza nahiz politika arloko eragileei. Eraikuntza berriko proiektu horrek erantzuna emanen lioke hurrengo ikasturteetan Erriberan aurreikusten den matrikulazioaren igoerari. Une honetan, Valle de Ebro eta Benjamin de Tudela institutuak bere ahalmenaren mugan daude, halako moduan non ezin duten bere gain hartu hurrengo urteotarako aurreikusten den ikasle-gorakada; hortaz, beharrezkoa eta estrategikoa da lehenbailehen heltzea eraikuntza berri horren proiektuari. Halaber, ikastetxe horiek handitzeak nabarmen zailduko luke ikastetxeon gobernantza.

Hori dela-eta, Hezkuntza Departamentuaren asmoa da 2026ko aurrekontuetan partida bat bideratzea proiektua idazteko, eta 2027koan, berriz, obrak egiteko eta zuzentzeko partida bat gaituko litzateke.

Hezkuntza Departamentuak ez du erabaki non egonen litzatekeen erreferentziazko ikastetxea; hori erabakitzeko, harremanetan jarriko da ukitutako udalekin nahiz eragin-eremuko gizarte eta hezkuntza arloko eragileekin.

Institutu berriak ahalbidetuko luke herri horietako ikasleek herrian bertan, hau da, Tuterara joan beharrik gabe, egin ahal izatea DBHko ikasketak eta, jakina, orain joan behar duten ikastetxeetako edozeinetan dauden aukera akademiko berberak izanda. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako instituturik ez daukan lurralde-ardatz bat kohesionatuko luke, Erriberako beste herri batzuek bai baitaukate zuzkidura hori (Castejón, Ribaforada, Cortes eta abar).

Tuterako ikastetxeen gobernantza hobetzeaz eta eremuaren lurralde-kohesioaz gain, badira proiektua justifikatzen duten beste arrazoi batzuk ere; esate baterako, landa-eremuko ikastetxe batetik beste herri batean dagoen institutu batera aldatzeak dakartzan erronkei aurre egin behar izatea arintzea, ikasle asko eta adin desberdinetakoak (11-12 urtekoak nahiz 18-19 urtekoak) dauzkan institutu batera hain zuzen ere.

Distantziari dagokionez, nahiz eta handiegia ez izan, zenbat eta distantzia txikiagoa egin errepidez, orduan eta txikiagoa da istripu bat izateko aukera, eta ziurtatu egiten da gorputzak eta buruak behar duten atsedena; izan ere, eskatzen duten institutu berriak eskain litzakeen ordutegiei esker, ez lukete ikastetxetik kanpo edo patioan eskolak hasi baino lehen itxoiten egon beharko. Ikastetxe txikiago batek hezkuntzaren kalitatea eta gizarte-kohesioa areagotzea ahalbidetuko luke.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hasi beharreko izapideak has ditzan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu bat sortzeko, Murchante, Cascante, Barillas, Ablitas eta Monteagudoko ikasleak ikastetxe bakar batean elkartzea ahalbidetuko duena, behar adina giza baliabide eta baliabide material jarrita, eskualdean kalitatezko hezkuntza bat bermatzeko.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Inmaculada Jurio Macaya

F saila:
**GALDERAK**

# 11-24/PES-00533. Galdera, Nafarroako Gobernua kirol egokitua dela-eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web bat taxutzera premiatzen duen mozioa betetze aldera hartutako neurriei buruzkoa

*FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernua kirol egokitua dela-eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web bat taxutzera premiatzen duen mozioa betetze aldera hartutako neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 14. artikuluan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentuak 11-24/MOC-00043 mozioa onetsi zuen joan den maiatzaren 16an –haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen kirol egokitua dela-eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web osatu eta gaurkotu bat taxutu zezan–. Zer neurri hartu du Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak mozioa betetzeko?

Web hori inoiz taxutzea aurreikusten al du? Data adieraz zenezakete?

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Francisco Javier Trigo Oubiña

## 11-24/PES-00534. Galdera, Nafarroako Gobernua REFENAra eraman zitezkeen kirolei buruzko azterlan bat egitera premiatzen duen mozioa betetzeari buruzkoa

*FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernua REFENAra eraman zitezkeen kirolei buruzko azterlan bat egitera premiatzen duen mozioa betetzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

a) Bete al duzue Parlamentuak joan den ekainaren 12an onetsi zuen 11-24/MOC-C00073 mozioa, zeinaren bidez Gobernua premiatzen baitzen REFENAra eraman litezkeen kirolei buruzko azterlan bat egin dezan?

b) Zein izan dira txostenaren konklusioak?

c) Posible izanen al litzateke REFENA egokitzea, osorik nahiz hein batean, kirol instalazioei dagokienez Kirol Instalazioei buruzko Plan Zuzendarian jasotzen diren federazio minoritarioek dauzkaten defizitak konpontzeko?

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

---

## 11-24/PES-00535. Galdera, Irulegiko eskua jendaurrean modu iraunkorrean erakusteko lekuz aldatzeari buruzkoa

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Irulegiko eskua jendaurrean modu iraunkorrean erakusteko lekuz aldatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako

Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilari Rebeca Esnaola andreari, idatziz erantzun diezaion:

Joan den ekainaren 20ko Osoko Bilkuran, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak honako hau adierazi zuen Irulegiko eskuaren egoerari eta lekualdatzeari buruzko ahozko galderari erantzutean (11-24/POR-00245 espediente-zenbakia): "eskua zaharberritze-prozesuan da, eta eskua museoan paratzeko betekizunei buruzko txostenak taxutzen ari dira, kontuan hartuta, zuk ere ongi esan duzun moduan, tenperatura, hezetasuna edo kanpoko nahiz barneko argiztapena". Orobat adierazi zuen 2024ko bigarren seihilekoan ikusten ahalko zela eskua Nafarroako Museoan instalatuta, behin-behineko toki batean bada ere, behin betikoz kokatzeko lekua egokitzeko obrak bukatu arte.

6 hilabete joan direnez eta Parlamentuan ez dugunez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuaren berririk jaso, honako hau jakin nahi dut:

Zertan da Irulegiko eskua jendaurrean modu iraunkorrean erakustearren lekuz aldatzeko prozesua?

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

---

## 11-24/PES-00536. Galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitalean bost espezialitatetako azterketak egiteko itxaron-zerrendak handitzen ez jarraitzeko ekintza-planari buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitalean bost espezialitatetako azterketak egiteko itxaron-zerrendak handitzen ez jarraitzeko ekintza-planari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer ekintza-plan dago Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Urologian, Errakisean, Oftalmologian, Otorrinolaringologian eta Ginekologian azterketak egiteko itxaron-zerrendak areagotzen ez jarraitzeko?

Iruñean, 2024ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

---

# 11-24/PES-00537. Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitalean azterketak egiteko itxaron-zerrendak handitzen ez jarraitzeko Osasun Departamentuak prestatutako ekintzei buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitalean azterketak egiteko itxaron-zerrendak handitzen ez jarraitzeko Osasun Departamentuak prestatutako ekintzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentu ak zer neurri zehatz hartu du edo hartuko du azterketa bat egiteko itxaron-zerrendak areagotzen ez jarraitzeko Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Traumatologian, Erreumatologian, Buruko Minen Unitatean, Pneumologian, Ginekologian, Dermatologian, Kardiologian eta Aurpegi eta Masailezurreko Kirurgian?

Iruñean, 2024ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

---

# 11-24/PES-00538. Galdera, García Orcoyen Ospitaleko bost espezialitatetan azterketak egiteko itxaron-zerrendak handitzen ez jarraitzeko Osasun Departamentuak prestatutako neurri zehatzei buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, García Orcoyen Ospitaleko bost espezialitatetan azterketak egiteko itxaron-zerrendak handitzen ez jarraitzeko Osasun Departamentuak prestatutako neurri zehatzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentu ak zer neurri zehatz hartu du edo hartuko du azterketa bat egiteko itxaron-zerrendak areagotzen ez jarraitzeko García Orcoyen ospitaleko Urologian, Errakisean, Oftalmologian, Otorrinolaringologian eta Ginekologian?

Iruñean, 2024ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-24/PES-00539. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan azterketak egiteko itxaron-zerrendak handitzen ez jarraitzeko Osasun Departamentuak prestatutako neurri zehatzei buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan azterketak egiteko itxaron-zerrendak handitzen ez jarraitzeko Osasun Departamentuak prestatutako neurri zehatzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentu ak zer neurri zehatz hartu du edo hartuko du azterketa bat egiteko itxaron-zerrendak areagotzen ez jarraitzeko Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Minaren Unitatean, Kirurgia Baskularrean, Gaixotasun Infekziosoetan, Amiantoan, Belarriaren Unitatean, Otorrinolaringologiako Haurren Unitatean, Oftalmologia Orokorrean, Haurren Oftalmologian, Pediatriako Digestio Atalean eta Haurren Traumatologian?

Iruñean, 2025eko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

---

## 11-24/PES-00540. Galdera, García Orcoyen ospitalean azterketa egiteko itxaron beharreko denborari buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, García Orcoyen ospitalean azterketa egiteko itxaron beharreko denborari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azken urte honetan, Lizarrako García Orcoyen ospitalean azterketa bat egiteko itxaron beharreko denbora handitu da Urologian (2023ko urrian 70 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 170 egunekoa), Errakisean (2023ko urrian 37 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 58 egunekoa), Oftalmologian (2023ko urrian 20 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 52 egunekoa), Otorrinolaringologian (2023ko urrian 56 egunekoa zen, eta

2024ko urrian, berriz 100 egunekoa) eta Ginekologian (2023ko urrian 50 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 73 egunekoa). Zeintzuk dira arrazoiak? (Itxaron-zerrendetako datuak, atalez atal, egiaz itxaron beharreko denborari buruzkoak).

Iruñean, 2024ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

---

## 11-24/PES-00541. Galdera, Tuterako Reina Sofía ospitalean azterketa egiteko itxaron beharreko denborari buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Tuterako Reina Sofía ospitalean azterketa egiteko itxaron beharreko denborari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azken urte honetan, Tuterako Reina Sofia ospitalean azterketa bat egiteko itxaron beharreko denbora handitu da Traumatologian (2023ko urrian 42 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 67 egunekoa), Erreumatologian (2023ko urrian 98 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 180 egunekoa), Buruko Minen Unitatean (2023ko urrian 88 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 170 egunekoa), Pneumologian (2023ko urrian 55 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 85 egunekoa), Ginekologian (2023ko urrian 43 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 71 egunekoa), Geriatrian (2023ko urrian 7 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 43 egunekoa), Dermatologian (2023ko urrian 38 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 316 egunekoa), Kardiologian (2023ko urrian 133 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 190 egunekoa) eta Aurpegi eta Masailezurreko Kirurgian (2023ko urrian 28 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 61 egunekoa). Zeintzuk dira arrazoiak? (Itxaron-zerrendetako datuak, atalez atal, egiaz itxaron beharreko denborari buruzkoak).

Iruñean, 2024ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

---

## 11-24/PES-00542. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan azterketa egiteko itxaron beharreko denborari buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan azterketa egiteko itxaron beharreko denborari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azken urte honetan, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan azterketa bat egiteko itxaron beharreko denbora handitu da Minaren Unitatean (2023ko urrian 76 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 108 egunekoa), Kirurgia Baskularrean (2023ko urrian 73 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 182 egunekoa), Gaixotasun Infekziosoetan (2023ko urrian 54 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 135 egunekoa), Amiantoan (2023ko urrian 32 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 210 egunekoa), Belarriaren Unitatean (2023ko urrian 83 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 210 egunekoa), Otorrinolaringologiako Haurren Unitatean (2023ko urrian 45 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 199 egunekoa), Oftalmologia Orokorrean (2023ko urrian 71 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 183 egunekoa), Haurren Oftalmologian (2023ko urrian 203 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 283 egunekoa), Pediatriako Digestio Atalean (2023ko urrian 216 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 462 egunekoa) eta Haurren Traumatologian (2023ko urrian 30 egunekoa zen, eta 2024ko urrian, berriz 104 egunekoa). Zeintzuk dira arrazoiak? (Itxaron-zerrendetako datuak, atalez atal, egiaz itxaron beharreko denborari buruzkoak).

Iruñean, 2024ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

# 11-24/PES-00543. Galdera, Lezkairuko Osasun Mentaleko IIA sektorean azterketa bat egiteko itxaron beharreko denborari buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Lezkairuko Osasun Mentaleko IIA sektorean azterketa bat egiteko itxaron beharreko denborari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Mentaleko IIA sektorean (Lezkairu) azterketa bat egiteko itxaron beharreko denbora 31 egunekoa izatetik 74 egunekoa izatera pasatu da 2023ko urritik 2024ko urrira. Zergatik? (Itxaron-zerrendetako datuak, atalez atal, egiaz itxaron beharreko denborari buruzkoak).

Iruñean, 2024ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

---

# 11-24/PES-00544. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko apirilean berritzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko apirilean berritzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00471 galdera idatziari emandako erantzuna ikusita:

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko apirilean berritzea aurreikusten al duzue?

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## 11-24/PES-00545. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko abuztuan berritzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko abuztuan berritzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00471 galdera idatziari emandako erantzuna ikusita:

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko abuztuan berritzea aurreikusten al duzue?

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## 11-24/PES-00546. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko abenduan berritzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko abenduan berritzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00471 galdera idatziari emandako erantzuna ikusita:

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko abenduan berritzea aurreikusten al duzue?

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-24/PES-00547. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko urtarrilean berritzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko urtarrilean berritzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00471 galdera idatziari emandako erantzuna ikusita:

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko urtarrilean berritzea aurreikusten al duzue?

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## 11-24/PES-00548. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko otsailean berritzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko otsailean berritzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00471 galdera idatziari emandako erantzuna ikusita:

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko otsailean berritzea aurreikusten al duzue?

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-24/PES-00549. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko uztailean berritzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko uztailean berritzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00471 galdera idatziari emandako erantzuna ikusita:

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko uztailean berritzea aurreikusten al duzue?

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## 11-24/PES-00550. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko ekainean berritzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko ekainean berritzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00471 galdera idatziari emandako erantzuna ikusita:

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko ekainean berritzea aurreikusten al duzue?

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-24/PES-00551. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko martxoan berritzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko martxoan berritzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00471 galdera idatziari emandako erantzuna ikusita:

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko martxoan berritzea aurreikusten al duzue?

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## 11-24/PES-00552. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko maiatzean berritzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko maiatzean berritzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00471 galdera idatziari emandako erantzuna ikusita:

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko maiatzean berritzea aurreikusten al duzue?

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

# 11-24/PES-00553. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko azaroan berritzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko azaroan berritzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00471 galdera idatziari emandako erantzuna ikusita:

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko azaroan berritzea aurreikusten al duzue?

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

# 11-24/PES-00554. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko urrian berritzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko urrian berritzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00471 galdera idatziari emandako erantzuna ikusita:

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko urrian berritzea aurreikusten al duzue?

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-24/PES-00555. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko irailean berritzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko irailean berritzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00471 galdera idatziari emandako erantzuna ikusita:

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, 2025eko irailean berritzea aurreikusten al duzue?

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## 11-24/PES-00556. Galdera, Luzaideko ibiltokiko lanei buruzkoa

*FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Luzaideko ibiltokiko lanei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Joan den ekainaren 28an, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak honako hau adierazi zuen Luzaideko ibiltokiari buruzko galdera idatziari emandako erantzunean (11-24/PES-00288):

"Turismo Zuzendaritza Nagusiak Luzaideko Udalarekin adostu du bere gain hartzea proiektu teknikoa, jarduketa egingarrienaren ingurukoa: errepidearen paraleloa den bide bat egitea, bi zati-

tan, bakoitza bi kilometro ingurukoa, errepidehesiaz bestaldeko pasabide jarrai batekin, zurez edertua, Nafarroan identifikatu diren beste zati arriskutsu batzuetarako proiektatu den moduan, Turismo Zuzendaritza Nagusiak Nasuvinsari enkargatutako azterlan baten bidez. Aldi berean hainbat kontsulta egin zaizkie Herri Lanei eta Ingurumenari, jarduketa horren egokitasuna egiaztatze aldera. Lan horiek guztiak abian dira eta emaitzak, jarduketaren, finantzaketaren zein kronogramaren aldetik, datozen hilabeteotan izanen dira".

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

a) Hasi al dira kontseilariaren erantzunean jasotzen diren lanak, hau da, errepidearen paraleloa den bide bat nahiz gainontzeko jarduketak?

b) Noiz aurreikusten da bukatuko direla lan horiek?

c) Jakitera eman al da egin beharreko lanen kronograma? Non kontsultatu daiteke kronograma hori?

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

---

## 11-24/PES-00557. Galdera, NICDOren plantillan 2018tik 2024ra bitarte egindako kontratu finkoei eta behin-behinekoei buruzkoa

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, NICDOren plantillan 2018tik 2024ra bitarte egindako kontratu finkoei eta behin-behinekoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilari Rebeca Esnaola andreari, idatziz erantzun diezaion:

Planetarioko plantillari dagokionez:

Iruñeko Planetarioan zenbat pertsona egon dira plantillan –kontratu finkoarekin nahiz behin-behinekoarekin– 2018, 2019, 2020, 2021, 2022, 2023 eta 2024an?

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

---

# 11-24/PES-00558. Galdera, Nafarroako Gobernuak bere gardentasunaren gaineko kanpo-ebaluazioren batean parte hartzeari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak bere gardentasunaren gaineko kanpo-ebaluazioren batean parte hartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Bere gardentasunari buruzko kanpo-ebaluazioren batean parte hartzen al du egun Nafarroako Gobernuak?

Hala bada, esan zer organismo ari den ebaluazioa egiten eta zein den egindako azken ebaluazioaren data.

Hala ez bada, zergatik ez da ebaluaziorik egiten?

Iruñean, 2024ko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

# 11-24/PES-00559. Galdera, NAITEC zentro teknologikoko langileek Nafarroako Gobernuari egin dituzten bileretan egindako eskariei buruzkoa

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, NAITEC zentro teknologikoko langileek Nafarroako Gobernuari egin dituzten bileretan egindako eskariei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

NAITEC zentro teknologikoko langileek eta Nafarroako Gobernuko kontseilariek egindako bileren akten kopiak eskatu nituenean, idatziz erantzun zidaten ez zegoela langile-batzordearekin egindako bileren aktarik, ez baitago halakorik egiteko obligaziorik. Hortaz,

1. NAITEC zentro teknologikoko langileek zer eskari egin zioten Nafarroako Gobernuari egin zituzten bileretan?

Iruñean, 2024ko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-24/PES-00560. Galdera, jakiteko ea SODENAk zer dela-eta ez dituen publiko egiten bere webguneko gardentasunaren atalean 2024ko maiatzaren 2tik hona egindako administrazio-kontseiluen aktak

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, jakiteko ea SODENAk zer dela-eta ez dituen publiko egiten bere webguneko gardentasunaren atalean 2024ko maiatzaren 2tik hona egindako administrazio-kontseiluen aktak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

SODENAk zergatik ez ditu publiko egiten bere webguneko gardentasunaren atalean 2024ko maiatzaren 2az geroztik egindako administrazio-kontseiluen aktak?

Iruñean, 2024ko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

## 11-24/PES-00561. Galdera, Irujo kontseilariak aipatzen duen Sunsundeguiren Administrazio-kontseiluaren osaerari buruzko "kontsulta juridiko-legalari" buruzkoa

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Irujo kontseilariak aipatzen duen Sunsundeguiren Administrazio-kontseiluaren osaerari buruzko "kontsulta juridiko-legalari" buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

11-24/PEI-00972 eskariari emandako erantzuna dela-eta, zer bide baliatu zen Irujo kontseilariak aipatzen duen Sunsundeguiren Administrazio-kontseiluaren osaerari buruzko "kontsulta juridiko-legala" egiteko?

Iruñean, 2024ko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

# 11-25/PES-00001. Galdera, gaixotasun mentala duten pertsonak Iruñeko Aita Menni Klinika Psikiatrikoan eta Elizondoko Benito Menni Ospitale Zentroan artatze aldera Elizondoko Jesusen Bihotz Sakratuaren Ahizpa Ospitalarien Kongregazioarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, gaixotasun mentala duten pertsonak Iruñeko Aita Menni Klinika Psikiatrikoan eta Elizondoko Benito Menni Ospitale Zentroan artatze aldera Elizondoko Jesusen Bihotz Sakratuaren Ahizpa Ospitalarien Kongregazioarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan.

Gaixotasun mentala duten pertsonak Iruñeko Aita Menni Klinika Psikiatrikoan eta Elizondoko Benito Menni Ospitale Zentroan artatze aldera Jesusen Bihotz Sakratuaren Ahizpa Ospitalarien kongregazioarekin hitzarmen bat sinatzea onetsi zuen Nafarroako Gobernuak; horren arabera, 23 plaza gehiago egonen ziren, 246 plaza itundu egiteraino guztira: 138 Iruñean eta 108 Elizondon.

Nafarroako Gobernuaren inbertsioa urtean 7,1 milioi eurokoa izanen da, hau da, 64.196.005,29 euro hitzarmenak iraunen duen bederatzi urteetan. Finantzaketa Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Osasun Departamentuaren artean eginen da (52.610.020,56 euro eta 11.585.984,73 euro, hurrenez hurren). Hitzarmenak 2021eko ekainaren 1ean hartu zuen indarra.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

– Nafarroako Gobernuak erabiltzaile itundu bakoitzeko zer prezio ordainduko die Ahizpa Ospitalariei Nafarroan itunduta daukan zentro bakoitzean hitzarmena indarrean dagoen urte bakoitzean?

– Hitzarmena indarrean egon den urte bakoitzean zer eguneratze egin dira zentro eta erabiltzaile mota bakoitzeko?

– Elizondoko Benito Menni enpresarentzat zer eragin ekonomiko dauka Benito Menniko enpresabatzordeak lansari-taulak sinatzeak edo ez sinatzeak urte amaieran?

– Nafarroako Gobernuak zer baldintza exijitzen dizkio Ahizpa Ospitalarien enpresari prezioa igo dezan? Igoera hori urtean behin egiten al da? Zerk eragin lezake prezioa aldatzea?

– Ahizpa Ospitalariek zenbat ohe daukate edo eduki dute itundurik Nafarroako Gobernuarekin Elizondoko Benito Mennin hitzarmena indarrean egon den urte bakoitzean? Eta zenbat Iruñeko Aita Mennin?

– Nafarroako Gobernuak gutxieneko zer ratio –zuzeneko nahiz zeharkako arretakoak– exijitzen die Ahizpa Ospitalariei kategoria profesional bakoitzean erabiltzaile-mota bakoitzerako? Zer eragin du ratio horiek ez betetzeak?

– Baldin eta baleude, zeintzuk dira, kategoria profesional eta erabiltzaile-mota bakoitzerako, Nafarroako Gobernuak kategoria profesional ezberdinen artean baimentzen dituen ratio-baliokidetasunak?

– Elizondoko Benito Menni zentroa kudeatzen duen enpresak aurkeztu duen proposamenaren arabera, zentro horretako oheak 133 izatetik 122 izatera igaroko lirateke. Nafarroako Gobernuak nola baloratzen du proposamen hori?

– Nafarroako Gobernuak bateragarri ikusten al du zaintza-eredu berrian ezarritako lan-ildo estrategikoak mantentzea –ereduak pertsona eta arretaren humanizazioa jartzen ditu erdigunean– eta

Benito Mennirako enpresak egiten duen planteamendua, non erabiltzaileak logelak partekatu behar dituzten.

– Benito Mennirako egiten den ohe-murrizketarako proposamenak 16 kaleratze ekarriko lituzke –gehienak, emakumeak–. Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du horri buruz? Egin al da kaleratzeak eragozteko proposamen alternatiborik?

Iruñean, 2025eko abenduaren 20an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

---

## 11-25/PES-00002. Galdera, eremu euskalduneko eta eremu mistoko afixa elebakarrei buruzkoa

*MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, eremu euskalduneko eta eremu mistoko afixa elebakarrei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Prentsan oraintsu argitaratu denaren arabera, "Administrazioan Euskaraz Taldeak beste behin kritikatu du Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Óscar Chiviteren jokabidea, behin eta berriz egin baitio uko Nafarroako errepidetako afixak ele bitan errotulatzeri dagokionez Arartekoak egindako gomendioak betetzeari".

Izan ere, Arartekoak, herritar batek aurkeztutako kexa baten ondorioz, kontseilariari gomendatu zion afixak euskaraz nahiz gaztelaniaz egon daitezen, bai eremu euskaldunean, bai eremu mistoan. Kontseilariak ontzat eman zuen gomendioa, baina orduan argudiatu zuen garestia izanen litzatekeela jada paratuta dauden afixak zuzentzea, eta etorkizunean gomendio horiek beteko zituela ziurtatu zuen.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

– Egia al da Arartekoaren gomendio horiek jaso ondoren berriro paratu direla afixak N-121 errepidean –hau da, eremu euskaldunean– gaztelaniaz soilik?

– Egia al da Arartekoaren gomendio horiek jaso ondoren berriro paratu direla afixak eremu mistoko errepideetan gaztelaniaz soilik?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

---

# 11-25/PES-00003. Galdera, talentua erakartze aldera Buenos Airesko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, talentua erakartze aldera Buenos Airesko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Parlamentari naizen honek 2023ko abenduaren 5ean egin zuen 11-23/PES-00224 galdera idatziari erantzunez, honako hau erantzun zuen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak:

“Nafarroako Gobernuaren Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa elkarlanean aritu dira hitzarmenaren irismena, gaiak eta edukiak definitzeko.

Elkarrekin egindako lan horri esker, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta gure Departamentuaren arteko hitzarmenaren zirriborroa sortzen ari da, eta laster helaraziko zaio Buenos Airesko Unibertsitateari, egoki iritzitako ekarpenak egiteko aukera izan dezan.

Ekarpen horiek jaso ondoren, espero da hitzarmena behin betiko zehaztea eta izenpetzea."

1. Jada sinatu al da Buenos Airesko Unibertsitatearekiko hitzarmena?

2. Sinatu ez bada, zergatik ez da oraindik sinatu?

3. Nafarroako Gobernuk eta Buenos Airesko Unibertsitateak 2022ko abenduaren 12an egin zuten bileraren ondoren –bertan iragarri zen hitzarmena "oso emankorra" izanen zela–, egon al da talentu-trukerik bi erkidegoen artean? Hala baldin bada, zehaztu zertan gauzatu den.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

# 11-25/PES-00004. Galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian hidrogeno berdeko planta bat eraikitzeari buruzkoa

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian hidrogeno berdeko planta bat eraikitzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

2023ko otsailaren 3an, Chivite lehendakariak amaiera eman zion “GreenH2CATudela" proiektua aurkezteko jardunaldiari. Proiektuaren arabera, hidrogeno berdeko planta bat eraiki behar zen Tuterako nekazaritza-elikagaien hirian (CAT), bertako enpresak eta, oro har, Erriberako industriak energiaz hornitzeko.

Proiektuak 8 milioi euroko inbertsioa eskatzen zuen: CATek berak 3 bat milioi jarriko lituzke, sektore pribatuak ere ekarpen bat egiteko konpromisoa hartu zuen eta Europako Next Generation funtsetatik 2,8 milioi helduko lirateke.

Hidrogeno berdeko planta eraiki, abian jarri eta ustiatuko lukeen sozietate mistoa sortzeko bazkide pribatu bat kontratatzeko bi lizitazio argitaratu eta gero (horrek guztiak 62 milioi euroko balioa izanen luke 18 urtean zehar), proiektua esleitu gabe gelditu zen eta, hortaz, Nafarroako Gobernuak "prozedura negoziatu" bat irekitzeko aukera hartu zuen gogoan 2024ko ekainean, instalazio hori eraiki eta ustia zedin bultzatuko lukeen bazkide pribatu bat bilatzeko.

Nafarroako Gobernuaren hasierako helburua zen planta abian egon zedin 2024a bukatu aitzin.

1. Bigarren lehiaketa eman gabe gelditu zenez geroztik, Nafarroako Gobernuak zer urrats egin du bazkide pribatu bat bilatzeko?

2. Nafarroako Gobernuak zer epe darabil gogoan bazkide pribatu batekin akordioa sinatzeko, planta berria eraikitzeko (proiektua lizitatzeko aurreikusten den epea eta eraikitze-prozesurako aurreikusten den denbora) eta abian jartzeko?

3. Prezioen igoerak zer eragin izanen du proiekturako hasiera batean aurreikusten zen kostuari dagokionez?

4. Kontuan hartuta proiektu horretarako Europako Next Generation funtsetako 2,8 milioi baliatzea aurreikusten dela, Nafarroako Gobernuak uste du funts horiek galtzeko arriskua dagoela baldin eta planta ez bada eraikitzen funts horien amaiera-epea baino lehen?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-25/PES-00005. Galdera, Nafarroako osasun-garraioaren oinarrien kokapenari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako osasun-garraioaren oinarrien kokapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Non kokatuko dira Nafarroako osasun-garraioak behar dituen egoitzak edo baseak?

– Ba al daude, egon, alokairuan nahiz erosita, kasuko nabeak edo lokalak?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-25/PES-00006. Galdera, Europako NG SEM funtsei buruzkoa

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Europako NG SEM funtsei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Europako NG SEM funtsei buruzko honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Jasotako 153 jarduketetatik, zein bideratzen dira I+G+Bra?

2. I+G+Bra bideratutako jarduketetan, zein da zenbateko osoa? Adierazi kasuko aurrekontu-partiden xehakapena.

3. Nafarroari esleitutako Europako NG SEM funts guztietatik (621.525.387 €, 2024ko azaroa ixtean), 10 euro bakoitzeko zenbat bideratu dira I+G+Bra?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

# PER20230032. Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hamabi administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Horietarik hamar Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak (bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin) izanen dira eta bi Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoak (bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin)

## Lanpostu huts bat gehiago sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Mahaiaren 2023ko ekainaren 14ko erabaki bidez onetsi eta Mahaiaren 2024ko otsailaren 26ko erabaki bidez geroago aldatu zen deialdia dela-eta Zerbitzu Orokorretako buruak egindako txostena, Nafarroako Parlamentuko zerbitzuko administrari lanpostu huts bat gehiago sar dadin –C mailakoa– hamabi administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak –horietarik hamar Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak (bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin) eta bi Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoak (bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin)– oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 42. artikuluaren 1.2 oinarrian ezarritakoaren arabera, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Baimena ematea Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren Idazkaritzari atxikitako administrari lanpostu huts bat gehiago sar dadin –C mailakoa– hamabi administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak –horietarik hamar Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak (bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin) eta bi Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoak (bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin)– oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian.

**2.** Erabaki hau Zerbitzu Orokorretako buruari eta Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari jakinaraztea, behar diren ondorioak izan ditzan.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

# 11-24/ELCC-00001. Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Kontseiluko kontseilari bat hautatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrarekin bat, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Kontseiluko lehendakari José Luis Goñi Sein jaunak Parlamentu honi eskatu dio kontseilukide berri bat izendatzeko prozesua has dezan, bere kargualdia amaitu egin baita.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ez du aurreikusten hautaketa horretarako arau berariazkorik. Hori dela-eta, Erregelamenduaren 42.1.9 artikuluarekin bat, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak izendapen hori egiteko arauak onetsi behar dituzte.

Horretarako, Legebiltzarreko legelari nagusiak arau-proposamen bat prestatu du.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42.1.9 artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

**Lehena**.- Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzeko prozesua hastea.

**Bigarrena**.- Aipatu hautaketa hori egiteko arauak onestea. Hona arau horiek:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatuko du, Foru Komunitateko lehendakariak izenda dezan, Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legean xedatutakoari jarraituz.

2. Hautagaiak izen aitortua duten juristak izan behar dira, gutxienez ere hamabost urteko lanbide-esperientziadunak, eta nafar izaera politikoa daukatenak.

Nafarroako Kontseiluko kide izatea bateraezina da:

a) Nafarroako Gobernuko kide izatearekin.

b) Europar Batasuneko, Estatuko, autonomia erkidegoetako zein toki entitateetako erakundeetako edozein kargu hautetsi izatearekin.

c) Alderdi politiko, sindikatu edo enpresari erakundeetako edozein zuzendaritza-kargu izatearekin.

d) Fiskal edo epaile karreretan jardunean egotearekin.

e) Herri lan edo zerbitzu publikoen emakidadun edo kontratista diren enpresetako edozein zuzendaritza-kargurekin.

3. Honako hauek proposatu ahalko dituzte hautagaiak: talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarteek, Nafarroako abokatu-elkargoek edo, kasua bada, Nafarroako Abokatu Elkargoen Kontseiluak, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak.

4. Hautagaiak aurkeztu beharko dira Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idazki baten bidez. Idazki horretan jaso beharko dira proposatutako hautagaiaren onarpena eta Nafarroako Kontseiluaren kide izateko betekizun legalak betetzen dituelako eta bateraezintasun kausarik ez dagoelako aitorpenak.

5. 2025ko martxoaren 6ko 17:30ean bukatuko da talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarteek, abokatu-elkargoek eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak hautagaiak aurkezteko epea.

6. Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du ea proposatutako hautagaiek betetzen ote dituzten eskaturiko baldintzak, eta jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

7. Aldarrikatutako hautagaiak, hautaketa egiten den Osoko Bilkuraren saioa egin baino lehen, arloan eskuduna den batzordean agertuko dira, beren merezimenduak azal ditzaten.

8. Nafarroako Kontseiluko kide berriaren hautaketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eginen da, bozketa isilpekoaren bidez.

9. Txartelen bidez eginen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak hautagai bakarraren izena bakarrik jarri ahalko du txartelean.

10. Mahaiak boto-kontaketa egin, eta botoen gehiengo osoa lortzen duen hautagaia hautatu dela aldarrikatuko du.

11. Aipatu gehiengoa lortzen ez bada, bozketa errepikatuko da, eta bigarren bozketa horretan hautagai bakar batek ere ez badu gehiengo osoa lortzen, prozedura bukatutzat eman eta prozesu berri bat hasi beharko da.

**Hirugarrena**.- Nafarroako Kontseiluari jakinaraztea kontseilukide berria hautatzeko prozesua hasi dela.

**Laugarrena**.- Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950